

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Urriaren 29ko 297/2019 Foru Agindua, zeinak hasierako onespena ematen baitio interes publiko aitortzeko espediente bati; hain zuzen ere, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) sustatutako jardura sismikoa neurtzeko instalazioarenari, zeina Baltia-Barrian baitago, Nabaxa herrian, Donemiliaga udalerriko lurzoru urbanizaezinean

Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Ekonomaiaren Garapen eta Azpiegituren Sailari atxikia dago, eta Donemiliagako Udalarari obra lizentzia eskatu dio Baltia-Barrian, Nabaxa herrian dagoen 4 poligonoko 680 lurzatian, jardura sismikoa neurtzeko "Axp" izeneko instalazioa jartzeko (Euskalsis sarearen barruan sartua).

Donemiliagako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen zati da aurkeztutako eskaera, eta haren arabera, Energiaren Euskal Erakundeak ardura du Euskal Autonomia Erkidegoko geologia eta meategien azpiegitura datuak aztertu, mantendu eta gizartearen eskura jartzeko, Geologia eta Meatzaritza Balibideen Sailaren bitartez. Horrenbestez, jardura sismologikoa monitorizatzeko sistema bat ezartzeko prozesua abiarazi du, Euskalsis sarea izeneko sare sismiko propio batekin, zeina osatuko baitu neurtzeko estazio sorta batek, lurralde guztian zehar modu homogeenan banatuak (batetik bestera 25 km-ko distantziarekin). Lortutako datuak denbora errealean gorde eta transmitituko dira irakurketako oinarritzako estazio batera, eta gero, integratu, prozesatu eta interpretatu egingo dira. Lortu nahi dena da datuak eta haien interpretazioa komunitate zientifikoaren eta jende guztiaren esku jartzea web atari baten bidez.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, ekipoak putzuetan lurperatuko dira, harkaitz egonkorren gainean, eta luraren araberrako sakoneran. Sismografo bakoitzak seinalea igorriko du ekipo digitalizatu batera, kable bidez, eta hark denbora errealean bidaliko ditu datuak kontrol zentzura, non gainerako estazioetatik jasotako datuekin batera prozesatuko baitira.

Horrez gain, sistemak armairu bat izango du, ekipoak, bateriak eta eguzki plakak jartzeko. Estazio bakoitzak burdinazko hesia izango du inguruan, animaliek edota pertsonak hondatu ez dezaten. Ekipo osoak ez du 9 m² baino gehiagoko azalera hartuko.

International Federation of Digital Seismograph Networks (FDSN) federazioaren kide da Energiaren Euskal Erakundea, eta haren web orrian, Sismikotasunaren Euskal Sareari buruzko apartatuan, FDSNren web gunearen esteka dago. Nazioarteko erakunde horretan, neurtze estazioak nola koordinatu adosten dute kideek, datuak modu askean eta irekian partekatzeko, xedea baita mundu guztiko komunitate zientifikoak aurrerapausoak ematea, eta batez ere munduko jardura sismikoa aztertzea.

Udal arkitektoak eginiko txostena aurkeztu du udalak, non jasotzen baita aurreikusitako kokapena lurzoru urbanizaezinean dagoela, 1 zonan, hau da, Babes Bereziko Zonan (Aizkorrri-Alzania-Urki-Elgea eta Zaria mendilerroa), halaxe jasotzen baitute udalerriko indarreko arau subsidiarioek, eta araudi horretako 180. artikulua arabera, onartutako jardueren artean daude onura publikoko edo gizarte intereseko eraikinak.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezartzen duen araubideari jarraituz, lurzoru urbanizaezinean “ezin da beste jardunik gauzatu aplikatzekoa den legedia sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak baizik, baldin eta, gainera, dagokion foru diputatuaren ebazpenaren bidez, interes publikokotzat jotzen badira, aldeztu aurretik hogeitun egunez jendaurrean edukitzeko izapidea beteta”

Bigarrena. Donemiliaga udalerriko arau subsidiarioen 180. artikulua jasotzen ditu Z1-Babes Bereziko Zonan aplikatu beharreko berariazko arauak, eta ezartzen du balio berezia duten eremuak direla, ingurumenari, paisaiari, ekologiari eta zientziari dagokionez, bertan dagoen landaredia dela eta, eta, beraz, ezin dela urbanizatzeko prozesurik gauzatu haietan. Horrez gain, adierazten du babes bereziko eremuan dagoen udalerrian hainbat eremu daudela, eta haietako batzuk EAEko Eremu Naturalen Katalogo Irekian daudela, zehazki, honako hauek:

– 52 katalogo zenbakia: Aizkorri-Altzania-Urkilla-Elgea eta Zaraya mendilerroa.

180. artikulua 4. apartatuak Z1 eremu horretan gauzatu daitezkeen jarduerak jasotzen ditu: “... onura publikoko edo gizarte intereseko eraikinak (ikus 179.3. artikulua)”

Bestalde, 179. artikulua, “Lurzoru urbanizaezin kategoriak” epigrafearen 3. apartatuan, honako hau ezartzen du: “1, 2 eta 3 zonetan kokatu behar diren abeltzaintzako jarduerak; silbikultura edo basogintzakoei; erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinei eta aireko lineei araudi orokorrak eta haietako bakoitzaren sektorekoak aplikatuko zaizkie, ingurunean duten eragina ebaluatu ondoren”

Donemiliagako Udalak igorritako agirietan ez da ageri EEEk aurkeztutako proiektuak ingurunean izan dezakeen eragina ebaluatzeko txostena eskatu dionik dagokion zerbitzuari. Horrenbestez, foru aldundi honetako Natura Ondarearen Zerbitzuari helarazi behar zaio Donemiliagako Udalak aurkeztutako eskaera, proiektuak izan ditzakeen ondorioak azter ditzan eta proiektuak izan dezakeen eraginari buruzko ebaluazioa egin dezan, espedientean jasota gera dadin. Horren berri eman behar zaio udal eskatzaileari.

Hirugarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespina ematea honako proiektu honen interes publikoa adierazteko espedienteari: jarduera sismikoa neurtzeko “Axpun” izeneko instalazioa jartzea —Euskalsis sarearen barruan sartua eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) sustatua— Baltia-Barrian, Nabaxa herrian, Donemiliaga udalerriko 4 poligonoko 680 lurzatian, lurzoru urbanizaezinean.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea hogeitun egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Aldi horretan nahi duen orok nahi dituen alegazio guztiak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2019ko urriaren 29a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO